

• MATTIN •



ETaren su-etenaren urteurrena

Inflexio historikoa

• IMANOL ZUBERO •

[EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA]

Michel Ignatieff historiari eta kazetari kanadarrak *Gerlariaren ohorea* liburuan idatzi du iraganak Balkanak oinazetzen jarraitzen badu hori gertatzen dela, hain zuzen ere, ez delako iragana; izan ere, munduko eskualde hartan denborari ez zaio ordena seralik antzematen, aldi bereko ordena baizik, zeinean iragana eta oraina inolako bereizketarik gabe nahasi egiten baitira. Robert D. Kaplan kazetari estatubatuarrek ideia bera adierazi du *Balkanetako mamuak* lanean: mundu hartan, denbora kapsuletan sartua bezala zegoen; eta Bulgariako Kanpo Arazoetako ministro ohi Luben Gotzev-en esaldi bat jaso du: "Gutziz murgilduta gaude geure historietan". Azkenik, Ismail Kadare idazle albaniarrek *Hiru hileta eresi Kosovorengatik* liburu ederrean bi rapsodaren drama kontatzen du; bata serbiarra da, eta bestea albaniarra, eta ihes egiten dute 1389an armada otomandarrak serbiarrez, albaniarrez eta errumaniarrez osatutako koalizio kristau bat garaitu ondoren, baina guztiarekin ere ezin egon elkarri aspaldiko bidegabekeriak aurpegiratu gabe: "Bata zein bestea beren iraganaren gatibu ziren, baina bata zein bestea ezin zitezkeen askatu, ez eta nahi ere, lotzen zituzten mendetako kateetatik".

Egile eta obra horiek ekarri ditut gogora Lizarrako deia egin zenetik eta, ondoren, ETak su-etenaren iragarri zuenetik lehendabiziko urtea bete den honetan. Eta gogora ekarri ditut euskaldunok,

nire ustez, mende honetan lehen-dabiziko aldiz, gure historia kolektibo linealegia hautsiko duen inflexioaren hasieran egon gaitzkeelako.

Badakit bakean gaudela esatea gehiegizkoa dela batzuentzat, eta gutxiegi bestezuentzat. Baina bakean gaude. Nahi genukeen bakea da? Ziur aski ez, baina, euskal gizarteak inkestetan adierazi bezala, gehien nahi dugun bakea da. Bake apala da, xehea; Galtung-en bereizketa jadanik zaharrera jo nahi bada (zeina gero eta interes gutxiagokoa iruditzen baitzait), bake negatiboa da. Bake posiblean gaude hainbeste indarkeri urteren ondoren. Bake posible bakarra? Ez; gai honetan ere ez gaitzen lerra pentsamolde bakarrera. Baina erdietsi ahal izan dugun bakea da.

Hori da dugun bakea. ETak egin du posible, ez bere borroka armatuaren bidez, hura etetea baizik. ETak ez hiltzea erabaki duelako gaude bake egoeran, eta ETak berri hiltzea erabakiz gero soilik hautsiko litzateke egoera hori. Ez da bake nahikoa? Ziur aski ez; izan ere, bake positibo baten ametsa, bake beteago batena, justiziaren fruitua den bakearena, amets mobilizatzaile bat da, uko egin behar ez dioguna. Ez da nahi dugun bakea, baina behar duguna. Behar baitugu bakea bera areagotzeko, zauriak sendatzeko, giroa lasaitzeko, zubiak berreraikitzeko, geure burua den bezala onartzeko, etorkizuna egiteko. Norbaiti bakean gaudela esatea askotxo iruditzen bazaio, gogora dezala nola geunden orain dela urtebete

baino gutxiago, eta, tranparik egin gabe, saia dadila pentsatzen zer ez ote zukeen egingo orduan egungoa bezalako egoera bat izateko. Gutxiegi dela iruditzen bazaio, kasu egin diezaiela herritarren bihotzetan iltzaturiko sentimenduei, eta oso argi izan dezala egoera hau haustea ez litzatekeela izango Madrillgo Gobernuari egindako pultsu bat, baina euskal gizartearen helburuei emandako kolpe hondatzailea. Eta batari zein besteari eskatuko nieke ez ahalegintzeko beren beldurrak zein nahiak gizarte honetan inokulatzen, oraindik eriondo baita, iraganez gaixotua.

Hurrengo hilabeteetan edozer gertatuta ere, pentsatu nahiko nuke gauzatu egin dela haustura historikoa. Aurten denoi ohiturak galtzea egokitu zaigu, deskonpresio esperientzia kolektibo bat izatea, iraganarekiko mirespen superstizioso oroz gabetzea (iraultza bat hasi nahi duen orori Marx zaharrak gomendatu bezala). Lehenengo aldiz ohartu gara posible dela bizitzea hildako belaunaldi guztien tradizioak (Marx berriz ere) amesgaizto baten gisan bizien etorkizuna zapaldu gabe.

Baina badago paradoxa triste bat: beti indarkeriaren biktima gisa agertu direnak, gaur egun, beste inor baino gehiago setatzen dira esaten ezer ez dela aldatu, lehen bezala jarraitzen dugula, haienztzat iraganik txarrena etorkizun zalantzazko baina betiere itxaropenez bete baina hobea balitz bezala.

*Erredakzioan itzulia



IÑIGO LAMARCA

Bush-juniorren buruhaustea



Hasia da Estatu Batuetan datorren urteko azaroan amaituko den presidentea hautatzeko prozesua, eta inperio amerikarraren agintari berri izateko aukera gehien duen Bush junior (bazkari ofizial batean konortea galdu eta enperadore japoniarren besoetan erori zen Bush lehendakari ohiaren semea) kezkatuta dabil. Bush-junior Texas Estatuko gobernadore da egun, eta porrua erretzen harrapatzen duena espetxerako bidean jartzen du. Kontua da gazte garaian kokainazalea omen zelako zurru-murrua jaso duela prentsak, eta berak inplizituki onartu egin du, azken 25 urteetan ez duela kokainarik probatu eta gaztaro axolagabekoa izan zuela adierazi baitu. Ai, ai, ai, Bush-junior, zer ez ote zenuen egin bizitzari askatasuna eta plazerra eskatzen zenizkionean, eta ez agintea eta dirua, orain bezala!

Balore-sistema kontserbadorean, eskuindarrak ez ezik, beren burua progresistatzat daukaten gehienek ere erabiltzen duten horretan, hipokresia zutabe garrantzitsuenetakoa da. Ondorioz, ez da orainarte arazo izan, ardura publikoa dutenez ari garelarik, publikoki esan eta egiten dena eremu pribatuan urratzea. Prentsak ezikusiarrena egiten zuen, eta ez zituen airatzen *privacy*-aren alorrari zegozkion kontuak. Baina Clintonekin erregela hori hautsi egin da, eta gizajoa harri eta zur geratu zen bere aurrekoek bulego obalean egiten zutena praktikatu ostean bere hankartartekoaren orban Jane Fondaren senarraren telebistan ikusi zuenean.

Bush-junior amerikar inperioaren barruan gauden euskaldunok ere gobernatuko gaituen hautagai eskuindarrak ez du hemendik aurrera gosari lasairik izango, *The Reno Times*-ek, kasu, Montanako txabola batean *marine* batekin egin zituen xirriak, esaterako, plazaratuko dituen beldur. Berri ona deritzot, edonola ere, kargu publikoen hipokresia gordetzen zuen gibelaldearen giltza erabiltzen hasteari. Ziur naiz, alabaina, argia ez dela mutur guztietara helduko, ez inola ere inperioaren interesak arriskutan jar ditzakeen punturaino.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Aukera gaiztoa

■ EAEko Auzitegi Nagusiak aurrerantzean udalekin komunikazioak soilik gaztelaniaz izango dituela erabaki du. Aurkituko zuen horretarako lege-zirrikiturik, seguru; azalpena eskatuz gero, emanen du esplikazio juridiko burutsurik. Lege aldetik bi kezka sorrazten ditu horrek: batetik, horrelako zirrikiturik aurkitzea, euskaraz jarduteko eskubidea hain erraz *bortxatu* ahal izatea; eta bestetik, zirrikitua faltsua izanda ere, eskubiderik ez balu ere auzitegiak hori egiteko, hura horretara behartzeko biderik ez dagoela. Baina matazak, beti bezala, badu hari-mutur bihurriagorik. Larriena jarrera da, borondatea. Hots, ahal izanda ere, euskaraz egin nahi ez izatea (egin izan du, gutxitan, baina egin egin du); ez egitera ez baitago behartuta. Aukera bat egin du: elkarrekin konpontzeari eta gatazkarik gabeko euskalduntzeari laguntzen ez dion aukera.